

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko 1 zenbakiko ordenantza fiskal orokorraren aldaketaren behin betiko onespina

Udalbatzak, 2024ko irailaren 26an egindako bilkuran, behin-behineko onespina eman zion kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko 1 zenbakiko udal ordenantza fiskalaren aldaketari (2024/80 espediente), eta 2024ko urriaren 4ko ALHAOn (113. zk.) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Ordenantza fiskal hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

"1 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKAL OROKORRA, KUDEAKETARI, BILKETARI ETA IKUSKAPENARI BURUZKOA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honetako zerga kudeaketa, bilketa eta ikuskapena ordenantza orokor honen arabera gauzatuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da aplikatzen eta indarrean jarraituko du hura indargabetzea edo aldatzea erabakitzen ez den arte.

3. artikulua

Zergen kudeaketa, bilketa eta ikuskapena udal administrazioak egingo ditu, albo batera utzi gabe Foru Aldundiak edo autonomia erkidegoaren administrazioak izan ditzaketen eskumenak eta orokorrean administrazio publikoekin egon daitezkeen lankidetzak formulak.

Era berean, udal administrazioak eskumena izango du ondorio horietarako udalerria kide den elkarte erakunderen batek emandako zerbitzuak erabiltzea erabakitzeko.

II. ZERGEN KUDEAKETA

4. artikulua

Zergak likidatzeko eta biltzeko kudeatuko dira eta legez funtzio horiek betetzea dagokien funtzionarioek bereiz kudeatuko dituzte. Hala ere, administrazio honen gobernu organoen antolakuntza eta zuzendaritza arloetako eskumenak kontutan hartuko dira.

Alkateari dagokio zergak kudeatzeko beharrezkoak diren administrazio egintzak ematea. Hala ere, egintzak emateko eginkizuna eskuordetzea xedatu ahal izango du.

5. artikulua

Honela hasiko da zergen kudeaketa:

- Subjektu pasiboaren edo atxikitzailearen edo kontuan sartu behar duen pertsonaren aitorpenaren edo ekimenaren bidez.
- Ofizioz.
- Udal administrazioaren ikerketa jarduketaren ondorioz.

6. artikulua

Pertsona natural nahiz juridiko, publiko edo pribatu guztiak behartuta daude zerga alorrean garrantzia izan dezaketen eta beste pertsona batzuekiko erlazio ekonomiko, profesional edo finantzariotik eratortzen diren datu, txosten edo aurrerakin guztiak administrazioari ematera.

7. artikulua

1. Zerga aitorpentzat hartuko da dokumentu oro zeinaren bidez udal administrazioaren aurrean berez adierazi edo onartuko den zerga egitatearen zirkunstantziak edota, hala balitz, integratzaileak eman edo gertatu direla.

2. Beharrezko aitorpena aurkezteak ez dakar berekin kargaren bidezkoatasuna onartzea edo aintzatestea.

3. Ezein kasutan ez da eskatuko zerga aitorpenak zinpean egiteko.

4. Zerga aitorpentzat emango da ekintza zergagarria eduki edo osatzen duten dokumentuak udal administrazioaren aurrean aurkeztea.

5. Derrigorrezkoa izango da aitorpena ordenantza bakoitzean ezarritako epeetan aurkeztea. Hura epeetik kanpo aurkeztea urratze arintzat jo eta horrela zigortuko da.

8. artikulua

1. Ordenantza honen 7. artikuluan aipatutako zerga aitorpenak egiazkotzakoak izango dira eta berauek egitean egitatezko okerra egin delako frogaren bitartez bakarrik zuzendu ahal izango ditu subjektu pasiboak.

2. Kudeaketarako edo galdapenak ebazteko prozeduretan bere eskubidea nagusiarazi nahi dezanak berbera, arrunki, osatzen duten egitateak frogatu beharko ditu.

Betebehar hori betetzat emango da udal administrazioak dituen froga elementuak era zehatzean izendatzen badira.

3. Subjektu pasiboen aitorpenak izatezko kasuei buruzkoak baino ez dira izango. Ez da baliozkoa izango, baldin eta beharrezko legezko arauak aplikatuz ateratzen denari buruzkoa bada.

4. Zerga arauak ezarritako presuntzioak kontrako frogaz deusezta daitezke, haiek beren-beregi debekatzen dituzten kasuetan izan ezik.

Foru arauak edo legeak ezarritako ustezkotasunak frogabide bezala onar daitezke, ezinbestekoa da frogatutako egitatearen eta ondorioztatu nahi denaren artean lotura zehatz eta zuzenekoa egotea giza irizpidearen erregelen arabera.

5. Udal administrazioak eskubidea izango du edozein ondasun, eskubide, enpresa, zerbitzu, jarduera, ustiategi edo funtzioaren titulartzat zerga erregistroan edo izaera publikoko beste erregistro batzuetan horrela ageri dena hartzeko, kontrako frogarik ez badago.

9. artikulua

1. Subjektu pasiboek eta gainerako zergapekoek udal administrazioari kasu bakoitzean dagoen zerga araubideari, sailkapenari edo kalifikazioari buruzko itaunak egin ahal izango dizkiote, berauek behar bezala dokumentatuz gero.

2. Kudeaketa organoak behartuta egongo dira kontsultaren erantzunean jasotako irizpideak aplikatzera, administrazio bidean egintzak berrikusteari eta udal interes publikoa kaltetzen duten egintzak aurkaratzeari buruz xedatutakoa aplikatuz dagokiona kaltetu gabe.

Interesdunek ezin izango dute errekurtsorik jarri ebazpenaren aurka, nahiz eta geroago aurkeztu ahal izan hartan oinarritutako administrazio egintzaren aurka.

3. Aurreko pasartean erabakitakoaren kalterik gabe, udal administrazioa ez da erantzunak lotua geratuko ondoko kasu hauetan:

- Itaunaren edukia itaundutako gertaera edo datuen errealitatearekin bat ez badator.
- Legeria aplikagarria alda dadinean.

4. Erantzunek aurreko apartatuetan aurreikusitako ondorioak eragin ditzaten, kontsultek honako baldintza hauek bildu beharko dituzte ezinbestez:

- Hura betetzeko eskudun den organoaren iritzia osatzeko beharrezko aurrekariak eta inguruabarrak edukitzea.
- Haiek geroago aldatuak ez izatea.
- Zerga egitea gertatu baino lehen edota hura aitortzeko epearen barruan egina izatea kontsulta.

5. Aurreko apartatuko a) letra dagokien aurrekariak eta inguruabarrak betetzen ez dituzten kontsultei ezetza eman diezaieke udal administrazioak.

6. Kontsulta aurkezteak ez ditu ordenantzetan zerga beharkizunak betetzeko aurreikusten diren epeak geldiarazten.

10. artikulua

1. Udal administrazioak aitortenak eska ditzake, hauen miaketa eta beretan jasotako aurrekariaren justifikazioa, era berean sumatutako akatsen zuzenketa, zerga likidatu eta hura egiaztatzeko beharrezko litzatekeenean.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako betebeharrak ez betetzea arau hauste simple gisa tipifikatu eta zehatuko da.

11. artikulua

1. Administrazio organoen ikerketa salaketa baten ondorioz abiatu ahal izango da. Salaketa egitea ez dago lotuta zerga administrazioari laguntzeko betebeharrari ordenantza honen 6. artikuluaaren arabera.

2. Salatzailea ez da interesduntzat hartuko salaketa jarritakoan irekitako ikerketa jardueran, ez eta horren emaitzen aurka errekurtsio edo erreklamazioak jartzeko legitimatutzat ere.

12. artikulua

1. Udal administrazioak zein zerga, kontzeptu edo epigrafe itun daitekeen adieraziko du.

2. Itunak araupetzeko oinarriak itun bakoitzari begira ituntzearen unean zehaztuko dira, beraiaz ageri ez badira itundu beharreko kontzeptu, epigrafe edo zergari dagokion ordenantza fiskalean.

13. artikulua

Zerga oinarriak zehaztuta, kudeaketak zerga zorra zehazteko likidazioa eginez jarraituko du. Likidazioak behin-behinekoak edo behin betikoak izango dira.

14. artikulua

1. Hauexek izango dira behin betikoak:

- Zerga egitatearen eta haren balorazioaren egiaztapen administratiboaren ondoren egingakoak, behin-behineko likidazioa egin ala ez egin.

b) Zerga bakoitza arautzen duen zerga ordenantzen adierazten den epearen barruan, egiaz-tatuak izan ez direnak, preskripzioaren kalterik gabe.

2. Gainerako kasuetan likidazioak behin-behinekoak izango dira, konturakoak, osagarriak, kauziozkoak, partzialak edo guztizkoak izan, baita autolikidazioak ere.

15. artikulua

1. Udal administrazioak ez du likidazioak subjektu pasiboek beren aitorpenetan jasotako datuetara doitu beharrik izango.

2. Zerga oinarria aitorpenen emaitzatik igotzen bada subjektu pasiboari jakinarazi beharko zaio eragin duten egitate eta elementu gehigarriak zehazki adieraziz.

16. artikulua

Udal administrazioak agiri bakarrera bildu ahal izango du subjektu pasibo beraren gain erortzen diren zergak likidatu eta biltzea, baldin eta likidazioan kontzeptu bakoitzaren oinarriak, tasak edo/eta kuotak eta bilketan kontzeptu bakoitzari dagozkion kuotak bereiz islatzen badira. Horien batuketaren arabera izango da ordainarazi beharreko kuota bategina.

17. artikulua

1. Zergapetu daitezkeen egitateetan jarraikortasuna duten zergak errolda edo matrikula egin ahal izango dute.

2. Altak egiteko subjektu pasiboen adierazpenak edo administrazioak egindako ikerketa ekintzak edo ofiziozko ekintzak erabiliko dira. Ondorioak indarrean jarriko dira zergaren ordenantzen xedapenen arabera zergak ordaintzeko betebeharra dagoenean, preskripzioa salbuetsiz, eta hurrengo ekitaldiko erroldan edo matrikulan gehituko dira behin betiko.

3. Bajak subjektu pasiboek egin beharko dituzte, eta egiaztatu ondoren erroldan behin betiko deuseztatuko dira. Ondorioak bajak aurkeztu eta hurrengo ekitalditik aurrera jarriko dira indarrean, ordenantza bakoitzean ezarritako salbuespenak izan ezik.

4. Zergadunek udal administrazioari egintza gertatu eta hogeita hamar egun balioduneko epean jakinarazi beharko dizkiote erroldan egindako altak, bajak edo aldaketak sortu ditzaketen egokitzapen guztiak.

5. Ekitaldi bakoitzean erroldak edo matrikulak alkatetzak onetsiko ditu eta horiek onetsi ondoren jendaurrean jarriko dira legezkotasuna betez interesatuek aztertu eta erreklamazioak egin ahal izateko hamabost eguneko epean.

6. Jendaurrean erroldak edo matrikulak erakusteak interesatuen egintza bakoitzean kontsignatuta dauden kuoten likidazioak jakinarazteko ondorioak izango ditu, albo batera utzi gabe horiek haien aurka ere erreklamazioak egin ahal izatea hamabost eguneko epean, borondatezko epea bukatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

7. Jendaurrean erakusteko egintza aurretiaz udaletxeko iragarki oholean adierazitako lekuan gauzatuko da.

18. artikulua

Zerga likidazioak subjektu pasiboek jakinaraziko zaizkie datu hauek adieraziz:

a) Haien funtsezko elementuak.

b) Aurkaratzeko zein aukera dauden, eta horretarako epeak zein diren eta zein erakundetan aurkaratu beharko diren.

c) Zerga zorra ordaindu behar den lekua, epea eta era.

19. artikulua

1. Behin betiko likidazioak, nahiz eta behin-behinekoak ez zuzendu, egintza administrati-boaren bidez erabaki beharko dira eta interesdunari arauzko eran jakinarazi.

2. Ordainagiri bidez aldizka kobratzen diren zergetan, behin erregistro, errolda edo matrikula egokian altaren likidazioa gaztigatu ondoren, kolektiboki jakinarazi ahal izango dira ondorengo likidazioak horrela ohartaraziko luketen ediktuen bidez.

3- Hala ere, ordenantzek berariazko jakinarazpena manuzkoa ez den balizkoak zehaztu ahal izango dituzte, baldin eta udal administrazioak alta gaztiguaren, agiriaren edo aitopenaren aurkezlea horrezaz idatziz ohartarazten badu.

20. artikulua

1. Jakinarazpen akastunek eragina sortuko dute subjektu pasiboak jakinarazpenaren xede den administrazio egintza likidazioaren edukia ezagutzea dakarten jarduerak egin, dagokion errekurtsioa jarri edo zerga zorra sartzen duen datatik aurrera.

21. artikulua

1. Salbuespenak, murrizteak, hobariak, kenkariak eta gainerako zerga onurak ematea, ukatzea edo geroratzea egikaritzeko zerga bakoitzaren berariazko araubidea kontuan hartuko da eta prozedura arautua izango da, eta edonola ere ez da analogia onartuko salbuespenen, hobarien eta gainerako zerga onuren mugetatik haratago horiek aplikatzeko.

2. Legezketasuna betez aurkako aurreikuspenik ez baldin badago, zerga onurak ematea eskatu egin beharko da. Eskaerarekin batera eskatzaileak nahikotzat jotzen dituen argudioak eta zerga bakoitzaren araudiak ezarritako dokumentazioa aurkeztuko dira. Eskatutako dokumentuak Amurrioko Udalaren edo beste administrazio baten esku badaude eta eskaeran jasotzen bada eskatzailea ez dagoela udalak datuak biltzearen aurka, ez da beharrezkoa izango dokumentu horiek aurkeztea. Horretarako baimena eman ezean, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko du eskatzaileak.

Zehazki, Amurrioko Udalak kontsultatu edo egiaztatuko ditu errenta datuak, familia ugariaren egiaztapena, ondasun higiezinaren egiaztapena, ibilgailuen datuak eta tributuetan eta prezio publikoetan zerga onurak aplikatzeko behar den gainerako informazioa, beste administrazio batzuen esku dauden datuak eskuratuz, Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoaren (NISAE) inguruan egituratzen den Euskadiko elkarreragingarritasun ereduaren bidez. Datu horiek ez badaude NISAE sisteman, interesdunak eman beharko ditu.

Pertsona fisikoak hiltzen badira eta pertsona juridikoak desegiten badira, automatikoki galduko dira hurrengo zergaldirako emandako onura fiskalak.

3. Orokorrean zerga onurak emateak ez du atzeraeraginezko ondorioz izango, eta beraz, ondorioak interesdunak eskaria egin eta zergaren sortzapena lehenengo aldiz gertatzean jarriko dira indarrean.

Zerga arloko arau haustea da datu garrantzitsuak isilduz zein datu faltsuak sartuz zerga onurak era desegokian eskatzea.

4. Zerga salbuespeneko, murrizketako edo hobariko eskariak eta orokorrean zerga onurako edo dirulaguntzetako eskariak ezetsi egingo dira (pertsona fisiko bati edo erakunde bati eman ahal zaizkionak banaka eta aurretiaz horiek eskaria egin ondoren) subjektu pasiboak eskaria egiten duen unean zerga betebeharrak egunean ez baditu. Eskaera ukatzeko ebazpena arrazoi horretan oinarrituko da berariaz, eta behar bezala jakinaraziko zaio interesdunari.

Salbuetsita daude gizarte larrialdiko laguntzak eta udal gizarte zerbitzuek proposatuta onartutako premia egoerarako udal laguntzak.

5. Denbora mugatu baterako eman diren zerga onurak ez dira aplikatuko horiek lortutako subjektu pasiboak bere zerga betebeharrak guztiak edo partzialak betetzeko hiru hilabete baino gehiagoko atzerapena izan duen ekitaldian.

Betekizun hori urte bat baino luzaragoan atzeratuko balitz, administrazioak ofizioz jardungo luke onura horiek, interesatuak duen betekizunen bat betetzeari uzten dion unetik, balio gabetzeko interesdunak betekizun horiek urtebeteko epea amaituta betetzeak ez du esan nahi onura fiskalak baliorik gabe uzteko erabakia ondorioz gabe utziko litzatekeenik.

6. Azaroaren 23ko 31/1998 Foru Arauak, telekomunikazio operatzaileen toki zergei buruzkoak, 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, telekomunikazio sare publikoak jartzeko banako lizentzien titular diren komunikazio operatzaileek, zerbitzu publikoko betebeharrak eskatu ahal bazaizkie, tokiko zergei eta prezio publikoei lotuta egongo dira, baina haiek ordainarazteagatik legozkiekeen zerga zorren ordezkari bat aplikatuko zaie, udal operadore horiek mugarte bakoitzeko fakturaziotik eskuratutako sarrera gordinen ehuneko 1,9. Araubide berezi horrek ez dio eragiten ondasun higiezinaren gaineko zergari. Harengatik uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauan eta hura garatzeko xedapenetan xedatutakoaren arabera tributatu dute.

7. Zergak eta prezio publikoak arautzeko ordenantzetan pertsona fisikoen errentaren arabera hobariak sartu ahal izango dira tokiko zergetan ekitate eta ahalmen ekonomikoaren printzipioak sartzeko.

Hori errazteko, 2 zenbakiko ordenantza fiskalak, OHZ arautzen duenak, 17. artikuluko 11. eta 14. apartatueta jasotako hobaria emateak automatikoki ekarriko du hobari hauek ematea zerga eta baldintza hauetan:

a) Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuak emateagatik tasa. Subjektu pasiboek eskubidea izango dute ondasun higiezinaren gaineko zergaren (OHZ) kuotaren hobaria onartuta duten etxebizitzetara dagokien tasan hobari bat izateko, errentaren arabera, ekitaldi ekonomiko berberetan eta baldintza berberetan, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan.

b) Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatik tasa. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitateetako subjektu pasiboek, tributatu beharreko ikasturtea hasten den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea. Hobari hori bateraezina izango da Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 14. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

c) Dantza irakasteko zerbitzua emateagatik tasa. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitateetako subjektu pasiboek, tributatu beharreko ikasturtea hasten den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea. Hobari hori bateraezina izango da dantza irakasteko zerbitzua emateagatik tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 15. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

d) Arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatik tasa. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitate batekoak diren eta udalerrian erroldatuta dauden subjektu pasiboek, tributatu beharreko ikasturtea hasten den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea. Hobari hori bateraezina izango da arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatik tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 18. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

e) "Oporretan ere euskaraz" programaren zerbitzua emateagatiko tasa. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitate batekoak diren eta udalerrian erroldatuta dauden subjektu pasiboek, tributatu beharreko zerbitzua ematen den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea. Hobari hori bateraezina izango da "Oporretan euskaraz" zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 19. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

f) "Udal igerileku gunea" izeneko kirol instalazioak erabiltzeko zerbitzua emateagatiko tasa, udako abonamenduetarako. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitate batekoak diren eta udalerrian erroldatuta dauden subjektu pasiboek, tributatu beharreko zerbitzua ematen den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea.

g) Ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa. Familiako kideren batek errentaren arabera OHZren kuotaren hobaria aitortuta duen familia unitateetako subjektu pasiboek, tributatu beharreko ikasturtea hasten den ekitaldi ekonomikoan, eskubidea izango dute kuotan hobari bat jasotzeko, ordenantza honen 1. eranskinean ezarritako ehunekoan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa OHZren hobaria onartzen den unean familia unitateko kide izatea eta hobaria duen etxebizitzan benetan bizitzea. Hobari hori bateraezina izango da ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 24. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

8. Baldintza hauek betetzen dituzten familia unitateetako kideak:

1. Familia unitateko kide guztiek eta haiekin bizi diren gainerako lagunek zenbateko hauen azpitiko errenta izatea:

a) Urtean 10.296,00 euro, bakarria bada etxebizitzan bizi eta familia unitatea osatzen duen pertsona.

b) Urtean 15.444,00 euro, bi badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

c) Urtean 21.000,00 euro, bi baino gehiago badira etxebizitzan bizi edo familia unitatea osatzen duten pertsonak.

Hobaria eman ala ez erabakitzeko, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian izandako diru sarrerak izango dira kontuan, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean. Apartatu honetan ezarritakorako:

a) Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenuko urterokoen murrizketa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 69. artikuluan jasotzen duena. Errenta zehazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

b) Familia unitatea azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

2. Hobari honetaz gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboek eta familia unitatea osatzen duten edo etxebizitzan bizi diren pertsonen ez edukitzea etxebizitza erabilera hutseko beste higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan.

Eskubidea izango dute zerga hauetan eta eskaera egin eta hurrengo hiru ekitaldi ekonomikoetan hobari hauek jasotzeko baldintza hauetan:

a) Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuak emateagatiko tasa. Subjektu pasiboek ehuneko 90eko hobarirako eskubidea izango dute familia unitate osoa erroldatuta ageri den etxebizitzari dagokien tasan.

b) Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izateko eskubidea izango dute eskaera ondorengo hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 14. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

c) Dantza irakasteko zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izateko eskubidea izango dute eskaera ondorengo hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da dantza irakasteko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 15. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

d) Arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatiko tasa. Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izateko eskubidea izango dute eskaera ondorengo hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 18. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

e) "Oporretan ere euskaraz" programaren zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotaren ehuneko 90eko hobarirako eskubidea izango dute ondorengo hiru urtez. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea matrikulazioaren unean. Hobari hori bateraezina izango da "Oporretan euskaraz" zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 19. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

f) "Udal igerileku gunea" izeneko kirol instalazioak erabiltzeko zerbitzua emateagatiko tasa, udako abonamenduetarako. Kuotaren ehuneko 90eko hobarirako eskubidea izango dute ondorengo hiru urtez. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea udako denboraldia hasten denean.

g) Ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotaren ehuneko 90eko hobaria izateko eskubidea izango dute eskaera ondorengo hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbestekoa izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea eskaera egiteko unean eta hala izaten jarraitzea hobariak eragindako ikasturteetako hasieran. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboak hobaria ematea eragin zuten baldintzei eustea, hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 24. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

h) Hobaria galtzea ekar dezake apartatu honetan jaso eta hobaria izateko eskubidea ekarri duen baldintzetakoren baten aldaketak.

9. Familia unitateetako kideek eta etxebizitzan bizi diren gainerako pertsonen ordenantza honen 2. eranskinean jasotako tartean ezarritakoa baino handiagoa ez badute (Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen 2 zenbakiko udal ordenantza fiskalaren 2. eranskineko 1. taula), ordenantza honen 2. eranskinean ezarritako hobari ehuneko jasotzeko eskubidea izango dute, honako tributu hauetan:

a) Hiri hondakin solidoak bildu, garraiatu eta ezabatzeko zerbitzuak emateagatiko tasa. Subjektu pasiboek eskubidea izango dute familia unitate osoa errolatuta dagoen etxebizitzari dagokien tasaren hobaria jasotzeko.

b) Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute eskaera egin eta hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da Amurrioko Herri Musika Eskolako herri musika zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 14. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

c) Dantza irakasteko zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute eskaera egin eta hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da dantza irakasteko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 15. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

d) Arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatiko tasa. Kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute eskaera egin eta hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da arte eskolako ikastaroak emateko zerbitzuagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 18. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

e) "Oporretan ere euskaraz" programaren zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotan hobaria izateko eskubidea izango dute ondoz ondoko hiru urtez. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea matrikulazioaren unean. Hobari hori bateraezina izango da "Oporretan euskaraz" zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 19. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

f) "Udal igerileku gunea" izeneko kirol instalazioak erabiltzeko zerbitzua emateagatiko tasa, udako abonamenduetarako. Kuotan hobaria izateko eskubidea izango dute ondoz ondoko hiru urtez. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea udako denboraldia hasten denean.

g) Ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa. Kuotan hobari bat izateko eskubidea izango dute eskaera egin eta hurrengo hiru ikasturteetan. Ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboa familia unitateko kide izatea edo etxebizitzan bizitzea eskaera egiteko unean eta hobaria ematea eragin duten baldintzei eustea hobariak eragindako ikasturte bakoitzaren hasieran. Hobari hori bateraezina izango da ludoteka zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren 24. eranskinean araututako beste edozein hobarirekin.

Hobaria galtzea ekar dezake apartatu honetan jaso eta hobaria izateko eskubidea ekarri duen baldintzetakoren baten aldaketak.

Hobari horiek eskaera egin eta hurrengo hiru ekitaldi ekonomikoetan aplikatuko dira, eta haietaz gozatzeko ezinbesteko baldintza izango da subjektu pasiboek eta familia unitatea osatzen duten edo etxebizitzan bizi diren pertsonak ez edukitzea etxebizitza erabilera hutseko beste higiezinik Euskal Autonomia Erkidegoan. Hobari hori subjektu pasiboak eskatu ondoren emango da, eta eskaera hori egin zeneko urtearen hurrengotik aurrera izango da indarrean.

Hobaria eman ala ez erabakitzeko, eskaera aurkeztu aurreko ekitaldian izandako diru sarrerak izango dira kontuan, eta ez da berriz ere kalkulatu hobaria jasotzeko epean. Apartatu honetan ezarritakorako:

a) Errenta da zerga oinarria ken konpentsazio pentsioen eta mantenurako urterokoen murrizketa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 69. artikuluan jasotzen duena. Errenta zehazteko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren datuak hartuko dira aintzat eta, autolikidaziorik aurkeztu beharrik ez badago, errenta hori egiaztatzeko balio duen beste edozein informazio.

b) Familia unitatea azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 98. artikuluan definitzen duena da.

10. Amurrioko Udalaren zerga ordenantzetan ezarritako zerga hobariren baten onuradun izateko kontuan hartzen diren zerga oinarriei buruzko daturik ez badago, jasotako diru sarrera guztiak hartuko dira kontuan, eta lan etekinak 3.000,00 euro murriztuko dira.

III. DIRUBILKETA

22. artikulua

Udal administrazioak bere zergen bilketatik ateratako kredituak bilduko ditu, bere langileak baliatuz edo horretarako udalerrria sartuta dagoen beste administrazio edo elkarte erakunde batzuen zerbitzuak erabiliz, ordenantza honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

23. artikulua

1. Legeak, subjektu pasibo diren pertsonekin batera, beste pertsona batzuk izenda ditzake zerga zorraren erantzule, solidarioki edota subsidiarioki.

2. Kontrako berariazko legezko manurik izan ezean, erantzukizuna beti izango da subsidiarioa.

3. Erantzukizunak zerga zor osoa hartuko du, zigorrak izan ezik.

Premiamenduzko errenergua soilik erantzuleari eskatuko zaio hurrengo apartatuko hirugarren paragrafoan araututako kasuan.

4. Beti ere, erantzuleei zerga zorra ordainarazteko ekintza administratiboaren eratorpenak administrazio egintza beharko du, interesduna entzun ondoren erantzukizuna aitortzen eta haren helmenean zehaztu dezaten.

Egintza hori jakinaraziko zaie, likidazioaren oinarriko xehetasunak adieraziz eta arauz finkatzen den moduan. Une horretatik zordun nagusiaren eskubide guztiak emango zaizkie.

Erantzuleari sarrera egiteko emango zaion borondatezko epea igarota. Ordainketa egiten ez badu erantzukizuna automatikoki zabalduko da dagokion errenergura eta zorra premiamendu bidez eskatuko da.

5. Administrazioaren ekintza erantzule subsidiarioengana zabaltzeak zordun nagusiaren eta gainerako erantzule solidarioen hutsegite aitortpena eskatuko du, aitortpen hori eman aurretik legeen barruan har daitezkeen kautelazko neurriak eragotzi gabe.

6. Zor berean erantzule solidarioak edo subsidiarioak bi edo gehiago badira, horietako edozeini eska dakioke zor osoa ordain dezan.

24. artikulua

1. Zergak aldi hauetan bilduko dira:

a) Borondatezko aldiak.

b) Betearazte aldiak.

25. artikulua

Zerga zorra borondatez ordaintzeko epea zenbatzen hasiko den unea honakoa izango da:

a) Subjektu pasiboari likidazioa zuzenean jakinaraztekoa, hura banaka egiten denean, edo likidazio hori BOEn argitaratzen denetik, zergadunari pertsonalki jakinarazterik ez dagoenean.

b) Zergak biltzeko epearen hasiera, ordainagiriaren bitartez aldizka kobratzeko zergak badira eta horien ondorengo likidazioak taldeka jakinarazten badira.

c) Sortzapenaren eguna, autolikidazioen kasuan.

26. artikulua

Betearazte aldia hasteak berarekin dakar ordaindu gabeko zorraren ehuneko 20ko errekargua eta zorraren berandutza interesak sortzea.

Errekargu hau ehuneko 10ekoa izango da sartu gabeko tributu zorra premiamendu probidentzia zordunari jakinarazi baino lehen ordaintzen bada, eta ez dira betearaztealdiaren hasieratik sortarazitako berandutza korrituak eskatuko.

26 bis. artikulua

1. Aukera dago subjektu pasibo dena aldizkako epemuga eta taldeko jakinarazpena duten ordainagiriak kontu korrontearen bidez zatika ordaintzeko sistema aplikatzeko, zergak ordaintzea errazteko; izan ere, aukera ematen dio subjektu pasiboari bere zerga zorren ordainketa urte osoan kuota partzial berdinetan hainbanatzeko, azken kuotak azaroan egingo den erregularizazio bat eginez. Sistema hori borondatezkoa eta doakoa da, eta ordainketa modalitate horretan sar daitezkeen zerga zor guztiak banku helbideratzearen bidez ordaintzea ekarriko du.

2. Sistema hau aplikatu ahal izango dute zerga betebeharren (ordainagiriaren) titular ageri eta berariaz eskatzen duten subjektu guztiek, bertan sartu beharreko zor guztien kuota bakoitzaren emaitza 10 eurotik gorakoa bada. Sistema honetan sartzen diren zerga zorrak zerga hauengatik eska daitezkeenak dira:

a) Hiri eta landa izaerako eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

c) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga.

d) Ibilgailuak finken barruan sartzegatik erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezientzatiko eta aparkaleku erreserbegatik (ibiak) tasa.

e) Hileta zerbitzuak emateagatik tasa.

f) Hiri hondakin solidoen kudeaketa zerbitzua emateagatik tasa.

g) Aldizka kobratzen diren beste okupazio tasa batzuk (larreen erabilera, udal finken luberritzea, mahaiak eta aulkiak jartzea, etab.).

3. Prozedura eskaera bidez abiatuko da, eta elementu hauek izango ditu derrigorrez:

a) Ordaindu behar duen pertsonaren identifikazio osoa.

b) Banku helbideratzerako datuak. Kontu bakarra zerga kontzeptu guztientzat.

c) Ordainketa egiteko eskatzen duen kuota kopurua; 9, 4, 3 edo 2 izan daitezke.

4. Sistema hori aplikatzeko eskaerak hurrengo urteko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

5. Ezingo dute sistema aplikatu eskaeraren datan kobratzeke dauden zor mugaeguneratuak dauzkaten subjektu pasiboek, haien alde ordainketaren geroratzea edo zatikatzea onartu ezean.

Kontu korrontearen bidezko aldizkako epemugadun ordainagiri sisteman sartzeko eskaera bakoitzean subjektu pasibo bakar baten eta zergaldi bakar bateko zorrak baino ezingo dira sartu.

6. Artikulu honetan araututako ordainketa zatikatuko sistema honela kudeatu eta kobratuko da:

a) Ordainketa zatikatuko sistema hau aplikatzen zaien zerga guztiei dagokien kalkulaturako zor osoa zergadunak eskatutako kuota kopuruaren artean hainbanatuko da eta kopurua ezingo da izan 9 kuotakoa baino handiagoa. Azken kuota izan ezik, zeina, nolana ere, azaroan eta abenduan igorriko baita, gainerako kuotak berdinak izango dira. Azken kuota, erregularizazioa, sistema horretan ordaindutako eta subjektu pasiboari dagozkion onartutako errolden ordainagiriaren guztirako zenbatekoaren alde izango da. Udalak ekitaldian sortutako zerga kontzeptu berriengatik ordainagiriak ordainketa zatikatuko sisteman sartu ahal izango ditu.

b) Hainbanatutako kuotak subjektu pasiboak horretarako adierazitako kontu korrontearen kargura kobratuko dira mugaeguna duen hil bakoitzaren lehen hamar egunetan.

c) Hauek izango dira mugaeguna duten hilak:

a. Ordainketa 9 kuotatan egitea aukeratu bada: otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, iraila, urria eta azaroa.

b. Ordainketa 4 kuotatan egitea aukeratu bada: otsaila, maiatza, iraila eta azaroa.

c. Ordainketa 3 kuotatan egitea aukeratu bada: otsaila, ekaina eta azaroa.

d. Ordainketa 2 kuotatan egitea aukeratu bada: maiatza eta azaroa.

d) Azken erregularizazioaren ondorioz udalak dirua itzuli behar balu, ofizioz itzuliko da helbideratutako kontu berean, eta kontzeptu horregatik ez da interesik ordainduko. Ez da ezer itzuliko subjektu pasiboak udalarekin zorrik ordaintzeke badauka.

7. Ekitaldian egiten diren ordainketak konturako sarrerak izango dira eta sistema horren pean jarritako zerga zorren ordainketari egotziko zaizkio ordainketaren azken aplikazioa gertatu ondoren.

8. Administrazioari egotzi ezin zaion zio batengatik kuotaren bat partzialki ordaintzen ez bada, administrazioak automatikoki utziko du bertan behera ordainketa sistema hori, eta udalak ez du jakinarazi beharrik izango.

9. Ordainketa sistema horri atxikita daudenek uneoro eskatu ahal izango dute borondatezko baja bertan, eta eskaeraren hurrengo urtean izango ditu ondorioak. Bai bertan behera utzi bai borondatez baja hartzen bada automatikoki salbuetsiko dira ordura arte sortu eta kobrantza sistema horretan sartutako errolda ordainagiriak.

Horrela sortutako errolda ordainagiriak bilketa sistema orokorraren pean egongo dira, eta borondatezko ordainketa aldien arabera dagozkien datetan likidatuko dira.

10. Alkatetzari dagokio aldizkako epemuga eta taldeko jakinarazpena duten ordainagiriak kontu korrontearen bidez zatika ordaintzeko sistemari atxikitzeke eskaera onetsi edo ezestea, eta tokiko gobernu batzordean ahalordetu ahal izango da.

Ordainketa sistema horri atxikitzea onetsita, hurrengo ekitaldiei aplikatuko zaie, interesdunak berriaz uko egin ezean.

11. Aldizkako epemuga duten ordainketa zatikatuko prozedura indarrean dagoen bitartean sistemako bereko ordainketetatik datorren ordainagiria baino ez da emango.

12. Udalak ez badu ordainketen sistema berezi hori behar bezala kudeatzeko programa informatiko egokirik, ordainketa aurreratuko zerbitzu hori eten ahal izango da alkatearen dekretu bidez, eta horren berri emango da ALHAOn eta iragarki taulan, eta jakinarazpenaren ondorioak izango ditu.

27. artikulua

1. Amurrioko Udalak ordainarazitako zergen subjektu pasiboek zerga zorren ordainketa geroratu edo zatikatzea eskatu ahal izango dute, borondatezko bilketa aldian badaude, euren altxortegiaren egoerak aldi horren barruan ordaintzea galarazten dienean.

2. Subjektuei pasiboek ez zaie onartuko zerga zorrak geroratu edo zatikatzea onartuko eskaera egiteko unean premiamendu bidean zerga zorrik ordaintzeke badaukate.

3. Geroratu edo zatikatutako zerga zorren ordainketa ez da geroratuko ez zatikatuko.

4. Geroratu edo zatikatzeako eskaerak zerga ordaintzeko ezarritako borondatezko epearen barruan egingo dira.

5. Banako eskaera bat egingo da ordainketa geroratu edo zatikatzea eskatzen den zerga kontzeptu bakoitzeko.

6. Zerga zorren zenbatekoa zerga kontzeptu bakoitzeko 3.000 eurotik gorakoa ez bada, subjektu pasiboek hura geroratu edo zatikatzeako eskatu ahal izango dute, auren altxortegiaren egoerak aldi horren barruan ordaintzea galarazten badie.

Kasu horietan ez da eskatuko banku abalik aurkezteko ez kreditu erakundeek berme hori formalizatzeari egindako ukorik, eta nahikoa izango da subjektu pasiboak bere altxortegiaren egoerak sarrera egitea galarazten diola adieraztea.

Geroratu edo zatikatzeako eskaera horiek idazkiaren bidez aurkeztuko dira Amurrioko Udalaren erregistro orokorrean, eta datu hauek jasoko dira bertan:

a) Eskatzailearen izena, abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, pertsona fisiko baldin bada. Pertsona juridikoa denean, sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko kodea eta helbidea. Sozietatearen izenean jarduten denean, pertsona horren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta ahalorde askietsi bidez jarduten duen adierazpena, agiri horren erreferentzia emanda.

b) Geroratu edo atzeratzea eskatzen den zerga zorra, zerga, zenbatekoa, zergaldia(k) eta epemuga adieraziz.

c) Mugaegun bera duten beste zerga zorra batzuk, zeinetarako, idazki bereizi baten bidez, geroratu edo zatikatzea eskatu edo eskatuko den.

d) Eskatzen den gerorapena edo zatikapena.

Kasu horietan, hau izango da onartzeko gehieneko epea:

a) Zatikatzeak: 11 hileko urtean, abuztuan ez beste guztietan.

b) Geroratzeak: 6 hilabete, abuztua bazter utzita.

7. Zerga zorren zenbatekoa zerga kontzeptu bakoitzeko 3.000,00 eurotik gorakoa bada, subjektu pasiboek hura geroratu edo zatikatzeako eskatu ahal izango dute, auren altxortegiaren egoerak aldi horren barruan ordaintzea galarazten badie, banku abalarekin batera.

Eskaera horiek egiteko idazkia aurkeztuko da Amurrioko Udalaren erregistro nagusian, eta datu hauek jasoko dira bertan:

a) Eskatzailearen izena, abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, pertsona fisiko baldin bada. Pertsona juridikoa denean, sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko kodea eta helbidea. Sozietatearen izenean jarduten denean, pertsona horren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta ahalorde askietsi bidez jarduten duen adierazpena, agiri horren erreferentzia emanda.

b) Geroratu edo atzeratzea eskatzen den zerga zorra, zerga, zenbatekoa, zergaldia(k) eta epemuga adieraziz.

c) Mugaegun bera duten beste zerga zorra batzuk, zeinetarako, idazki bereizi baten bidez, geroratu edo zatikatzea eskatu edo eskatuko den.

d) Eskatzen den gerorapena edo zatikapena.

e) Banku abala paragrafo honetan adierazitako moduan.

Eskaera egiten duenak bermea aurkeztuko du, banku, aurrezki kutxa konfederatu, aurrezki kutxa postal zein baimendutako beste erakunde baten abal solidario moduan, Amurrioko Udalaren alde, zergaren eta berandutze interesen zenbatekoagatik.

Gerorapen edo zatikapen horiek onartzeko hau izango da gehieneko epea:

a) Zatikatzeak: 11 hileko urtean, abuztuan ez beste guztietan.

b) Geroratzeak: 6 hilabete, abuztua bazter utzita.

Salbuespenez, geroratu edo zatikatze eskabideak, banku abalik erantsi gabe, berezitasun hauekin:

a) Atzerapen edo zatikapen eskaerarekin batera, bere alde abala formalizatzeko bi kreditu erakunde ezezkoa aurkeztuko du eskaera egileak. Hauek jasoko dituzte ezezko horiek:

1) Subjektu pasiboa, gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin, abala ematea ukatzen duen kreditu erakundearen ohiko bezeroa delako adierazpena.

2) Abala ezin emateko zio zehatzak.

3) Zergaren subjektu pasiboak finantza erakunde dautzkan mota edo modalitate orotako aurrezki kontuen batez besteko saldoak. Batez besteko saldo horiek aurrezki kontu bakoitzeko zehaztuko dira eta finantza erakunde egindako eskabidea egin aurreko hiruhilekoak izango dira.

Amurrioko Udalak subjektu pasiboari aurrezki kontuetan dituen saldoak erakusteko eskatu ahal izango dio; saldo horiek zorra borondatezko epean ordaintzeko mugaegunekoak izango dira edo egoki iritzitako beste egun batekoak.

b) Baldintzarik gabeko baimena, Amurrioko Udalak subjektu pasiboaren mota edo modalitate orotako banku kontu guztien saldoak eta mugimenduak ezagut ditzan, eskatutako zatikapenak edo gerorapenak irauten duen bitartean.

8. Gerorapena edo zatikapena ematen den kasu guztietan, 26 bis artikuluan araututakoa izan ezik, diru sarrera egiteko borondatezko epe amaieraren eta geroratzea edo zatikatzea emateko epearen arteko denborari dagozkion berandutze korrituak likidatuko dira.

Eskaera luzapen aldian egingo balitz, berandutze interesak likidatuko dira zurraren mugaegunaren eta eskaeraren dataren artean igarotako aldiagatik, eta printzipalari pilatuko zaio geroratzen edo zatikatzen den kapitala kalkulatzeko. Zenbatekoa luzapen errekarua baino txikiagoa balitz errekaru horren zenbatekoa pilatuko zaio printzipalari, berandutze interesen orde.

9. Gerorapen edo zatikapen bat duen subjektu pasiboak zor osoa edo zerga zorraren zati bat ordaindu ahal izango du emandako epea amaitu baino lehen. Kasu horietan, Amurrioko Udalak berriz kalkulatuko ditu berandutze interesak.

10. Amurrioko Udalak edonolako ordainketa edo itzulketaren bat egiten badio geroratutako edo zatikatutako zerga zorrak dituen pertsona edo erakunde bati, itzulketa edo ordainketa hori zenbateko horiei egotziko zaie.

11. Eskaerak desegokiak bada edo gerorapena edo zatikapena onartzen ez bada, Amurrioko Udalak dagokion espedientean jaso eta interesdunari jakinaraziko dio.

Kasu horietan, interesdunari bere eskabidearen izapidetzea edo gerorapen edo zatikapena ukatzea bidegabeak direla jakinarazi ondoren, borondatezko epealdian diru sarrera egiteko epea emango zaio, eta epe hori eskabidea aurkeztu zuenean geratzen zitzaionaren berdina izango da; bost egun baino gutxiagokoa izango balitz, bost egunekoa.

Eskaera luzapen aldian aurkeztu balitz, ematen zaion epean egin beharreko sarrerari luzapen errekarua edo, hala balegokio, berandutze interesa aplikatuko zaio, aplikatu beharreko araudiaren arabera dagokionaren arabera.

12. Zatikapen baten epeak, printzipala eta interesak izango dituztenak, berdinak izan behar dira, bai zenbatekoari dagokionez, bai epemugen arteko denborari dagokionez, abuztua bazter utzita.

13. Emandako epearen epemuga iritsita, diru sarrera egiten ez bada, ondoren emango lira-tekeen epeak egun horretan bertan iraungizat joko dira.

Amurrioko Udalak erakunde abal emaileari eskatuko dio zor bermatua ordaintzeko.

14. Eskatzaileak egindako dokumentazio gehigarriaren errekerimenduei denboran eta forman erantzuten ez badie, automatikoki artxibatuko da eskaera eta Amurrioko Udala ez da behartuta egongo berariazko ebazpenik hartzera.

28. artikulua

1. Zorrek eskudirutan ordaindu beharko dira. Udalbatzak horrela xedatzen duenean baino ez da onartuko gauzatak ordainketa.

2. Eskudirutako ordainketa honako tresnok baliatuz egin ahal izango da:

a) Legezko erabilerako dirua.

b) Banku edo aurrezki kutxaren kontu korrontearen kontra igorritako txekea, zeinak igorritako erakundeak behar bezala baieztatuta edo ziurtatuta egon, Amurrioko Udalaren aldeko izendun izan eta sinaduraren azpian, argi eta garbi, igorle denaren izena edo sozietatearen izena adierazi beharko baitu.

c) Bankuaren edo aurrezki kutxaren transferentzia.

d) Posta bidezko igorpena.

e) Udalak baimendutako beste batzuk.

3. Zergak udalaren zerga bilketa bulegoen edo zergak biltzen dituzten erakundeen edo erakunde lankideen bitartez bilduko dira.

29. artikulua

Aldizka ordaindu eta taldeko jakinarazpena duten zergak euskal administrazioaren ordainketa pasabidearen bidez, udaletxean dagoen herritarrentzako autozerbitzuko kutxazainean edo aurrezki kutxen edo bankuen establezimenduetan helbideratuz ordaindu ahal izango dira. Azken aukera horrek baldintza hauek ditu:

1. Udal administrazioari eskatzea.

2. Ordainketen helbideratzeek denbora mugagabeen balio izango dute eta zergadunek edozein unetan deuseztatu ahal izango dituzte edo beste establezimendu batzuetara eraman. Horren berri jakinarazi beharko diote udal administrazioari baliozkotasun epearen barruan.

3. Udalak une oro ezarriko du helbideratzeko eskabideak onartzeko mugaeguna edo horiek ondorea ekarriko duten epealdia.

Aldizkako zerga horiek ezin izango dira banku transferentzia bidez ordaindu.

30. artikulua

1. Interesdunak eskatuta, udal administrazioak egindako ordainketaren frogagiria emango du. Hauek izango dira dirutako ordainketen frogagiriak:

a) Ordainagiriak.

b) Ordainketa gutunak.

c) Banku edo aurrezki kutxa baimenduek behar bezala izapidetutako frogagiriak.

d) Zorpeko ziurtagiriek eragindako sarreren behin-behineko ordezkagiri ofizialak.

e) Ordainsarien, ordainketa gutunen eta behin-behineko ordezkagirien ziurtagiriak.

f) Udalak berariaz ordainagiri gisa onartzen duen beste edozein dokumentu.

2. Ordainketaren frogagirik honako inguruabarrok adierazi beharko dituzte gutxienez:
 - Zordunaren izen-abizenak, edo sozietatearen izena, edo deitura, eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
 - Egoitza.
 - Zerga kontzeptua eta haren aldia.
 - Zenbatekoa.
 - Kobrantza eguna.
 - Egin duen organoa.

31. artikulua

1. Epe prozedura eta premiamendu prozedura hasiko dira sartzekoa borondatezko epealdian sartzeko epeak mugaeguneratuta zorra ordainduta ez badago, eta hurrengo zenbakietan ezartzen denera doituko da.
2. Honako hauek izango dira administrazio premiamendu bidezko betearazpena burutzeko kreditua kreditatzen duten tituluak:
 - a) Zerga biltzaileek luzatutako patente edo ordainagiriko baloreengatiko zordunen harreman ziurtatuak.
 - b) Zorpeko ziurtagiriak gainerako kasuetan.
3. Titulu horiek epai batek duen exekuzio indar bera izango dute zordunaren ondasun eta eskubideen kontra egiteko.

32. artikulua

1. Aurreko artikuluko 2. zenbakiak aipatzen dituen tituluak emanda, udal diruzaintzak premiamendu probidentzia emango du, zordunaren ondasun eta eskubideak derrigorrez exekutatzeko aginduz, eta haren aurkako errekursoak alkatetzak edo, ahalordetuta, tokiko gobernu batzordeak ebatziko ditu.
2. Premiamendu probidentziaren aurka egiteko arrazoi hauek soilik onartuko dira:
 - a) Zorra ordaindu edo iraungitzea.
 - b) Preskripzioa.
 - c) Gerorapena.
 - d) Likidazioaren jakinarazpenik eza edo deuseztatu edo eten izana.
3. Premiamenduzko probidentzia ez jakinarazteak berarekin ekarriko du premiamenduzko jardunbidean sortzen diren egintzak aurkaratzea.

33. artikulua

1. Premiamendu prozedura eteteko, kasuari dagokion bermea egin beharko da, eta, hala ere, hurrengo kasuetan baino ez da onartuko:
 - a) Errekurtso eta erreklamazio ekonomiko-administratiboen arautegian aurreikusitako modu eta kasuetan.
 - b) Arautegi aplikagarriak hala ezartzen duenean.
2. Dena den, berme beharrik gabe geraraziko dira prozeduraren jarduketak interesatuak bilketa organoari hala eskatzen dionean, baldin eta ondoko inguruabarretako bat gertatu dela frogatzen badu:
 - a) Zorra zehazterakoan akats materiala, aritmetikoa edo izatezko besteren bat.
 - b) Zorra eta, hala dagokionean, sarrera egin arteko prozeduraren kostuak ordaindu izana.
 - c) Zorra barkatu, konpentsatu, eten edo geroratu izana.

3. Horietako egintzaren bat frogatzen bada, jarduerak eten egiten direla jakinaraziko zaio interesdunari, unean bertan han baldin badago, edo berehala, ez badago.

Alegatutako akatsa dagoen aztertzea bilketa organoaren eskumena ez bada, eskudun den organoari bideratuko zaio. Hark errakuntza badagoela egiaztatu ondoren, zuzendu egingo du eta, hala badagokio, beste likidazio bat egingo du. Edonola ere, dirubilketarako organoari emaitzaren berri emango dio, eta, baldin eta alegatutako hutsegitea egiazkoa ez bada edo alegazioa garaiz kanpo aurkeztu bada edo beste arrazoi batengatik bidezkoa ez bada, organo horrek prozedura-rekin jarraituko du.

4. Jabariko hirugarrengotzagatiko erreklamazioa edo izaera zibileko beste ekintzaren bat gertatzen denean, ondasun edo eskubide eztabaidagarriei buruzko premiatasun prozedura eten egingo da haien bahitura eta, hala badagokio, erregistro publikoan prebentziozko idatzoharra burutu ondoren.

34. artikulua

Udal administrazioak lehentasuna izango du mugaeguneratuta baina ordaindu gabe dauden tributu kredituak kobratzeko, baldin eta berarekin batera agertzen diren hartzekodunak ez badira jabari, bahi zein hipoteka hartzekodunak, edo ez bada erregistroan administrazioaren eskubidea agerrarazi baino lehen behar bezala inskribatu den beste eskubide erreal baten titularra, ordenantza honen 35. eta 36. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

35. artikulua

1. Erregistro publiko batean erregistratu ahal diren ondasunak edo eskubideak edo berauen egiazko edo ustezko zuzeneko produktuak aldizka zergapetzen dituzten zergetan, Amurriko Udalak lehentasuna izango du beste hartzekodun edo eskuratzailen gainean, nahiz eta kobratzeko administrazio ekintza egikaritzen den egutegiko urteari edo beronen aurre-aurreko urteari dagozkion zor ordaindu gabeak kobratzeko beren eskubideak erregistratu dituzten.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoaren ondorioetarako, baldin eskubidea erregistroan inskribatu den ekitaldiari edo ondasun zein eskubideen transmisioa egin den ekitaldiari baldin badagozkio zor horiek, kobrantzarako administrazio ekintza erabiltzen dela ulertuko da, zorren dirubilketarako prozedura borondatezko aldiaren hasten denean.

3. Artikulu honetan aipatzen den bermea erregistro publikoetan jaso ahal izango da prebentziozko bahitura ohartarazpen bidez, hori ez egiteak 1. atalean zehaztutako lehentasuna aldatzen ez duela.

4. Bai hipoteka hartzekodunak, bai eskuratzailak eskubidea dute interesatzen zaizkien ondasunen kuoten zatiketa eskatzeko, kuota horiek besteekin batera baldin badaude zergadun baten ordainagirian.

36. artikulua

1. Pertsona fisikoek, sozietateek eta erakunde juridikoek ustiapena eta jarduera ekonomikoak burutzetik datozen zerga zor eta erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkie haiek edozergatik titulartasunean ordeztzen dituztenei. Hala ere, kontutan hartuko da inbentario onuran onartutako jaraunspenari begira Kode Zibilean ezarrita dagoena.

2. Egungo titularra aurretik ados egonik titulartasun hori eskuratu gura duenak eskubidea izango du aurreko paragrafoan aipaturik dauden ustiapena eta jarduera ekonomikoak burutzetik datozen zerga zor eta erantzukizunen ziurtagiria administrazioari eskatzeko. Ziurtagiria eduki negatiboarekin luzatzen bada edo bi hilabeteko epean ematen ez bada, hura artikulu honetan ezarritako erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

37. artikulua

Titulu honetan xedatutakoa zergen, zerga berezien, tasen, prezio publikoen eta udalaren aurrekontuetan sarrera gisa agertzen diren ordainarazpen parafiskalen kobrantzari aplikatzen zaie, baita udalak eskubide publikoko sarrera gisa jaso behar dituen gainerako zenbatekoen ordainarazpenari ere.

IV. IKUSKATZEA

38. artikulua

1. Udal administrazioak zerga egitatea osatu edo baldintzatzan duten gertaera, ekintza, egoera, jarduera, ustiapen eta gainerako zirkunstantziak egiaztatu eta ikertu ahal izango ditu.

2. Egiaztapenak zerga aitopenetan jasotako ekintza, elementu eta balorazio guztietara iritsi ahal izango da, eta oinarri zergagarrien estimazioa ere hartu barnean, Arabako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen bideak erabiliz.

3. Subjektu pasiboak deklaratu ez edota partzialki egina izan den ekintza zergagarria ukituko du ikerketak. Era berean, zerga egitateen likidazioa subjektu pasiboak berak egin beharko duenetan ere zerikusi izango du.

39. artikulua

Udal administrazioak Zergei buruzko Arabako Foru Arau Orokorrak xedatzen duenera egokituko ditu aurreko artikulua aipatzen dituen egiaztatu eta ikertzeko jarduerak, bere langileak baliaiz zein horretarako udalerria sartuta dagoen beste administrazio edo elkarte erakunde batzuen zerbitzuak erabiliz, ordenantza honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera.

40. artikulua

Hauek dira zergen ikuskaritzaren ardurak:

- Zerga betebeharren egitateak ikertzea, administrazioak ezagutzen ez dituenen berri jakiteko.
- Zergapekoek aurkeztutako aitopenen eta autolikidazioen benetakotasuna eta zehaztasuna egiaztatzea.
- Egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketan ondorioz gauzatu beharreko zerga likidazioak proposatzea.
- Zergen aplikazioari lotutako informazioa lortzeko jarduerak egitea.
- Eskubide, errenta, produktu, ondasun, ondare, enpresa eta gainerako elementuen balioa egiaztatzea, zerga betebeharrak zehazteko beharrezkoa denean.
- Egiaztatze mugaturako jarduketak egitea.
- Zergen arloko onurak edo pizgarriak eta zerga itzulketak lortzeko betekizunak betetzen diren egiaztatzea, bai eta zerga araubide bereziak aplikatu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen diren ere.
- Ikuskapen jarduketak direla eta zergapekoei euren eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea, eta betebeharrak nola bete behar dituzten azaltzea.

i) Zerga esku hartzeak, iraunkorrak zein ez-iraunkorrak, egitea.

j) Beste xedapen batzuetan ezartzen direnak edo agintaritzaren eskudunak agintzen dituenak.

41. artikulua

Zergak ikuskatzeko eginkizunak betetzen dituzten funtzionarioek, euren eginkizunak betetzeko behar duten ziurtagiria izanik, agintaritzaren agenteak izango dira.

42. artikulua

Hauek izan ahal izango dira ikuskapen jarduerak:

- Egiaztatu eta ikertzeko.
- Zerga mailan garrantzia duen informazioa lortzeko.
- Egiaztapen murriztuaren prozedura.
- Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozedura.
- Egiaztapen mugatuko prozedura eta araudiak ezarritako beste edozein prozedura.

43. artikulua

1. Ikuskatze ekintzak ondoko leku hauetan bereizteke egin ahal izango dira:

a) Zergapekoak bere zerga helbidea duen tokian edo hark horretarako izendatutako ordezkariarenean.

b) Zergapeturiko jarduerak osorik edo neurri batean egiten diren lekuan.

c) Zerga egitatearen edo zerga betebeharraren eragilearen partzialen frogaren bat dagoen tokian.

d) Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen bulegoetan, elementuak haietan ikuskatzeko modua badago.

2. Zergen ikuskaritzak erabakiko du kasu bakoitzean non burutuko diren bere jarduerak, eta bere komunikazioetan emango du horren berri.

44. artikulua

1. Zergen ikuskatzaileak finketan, negozio lokaletan eta jarduerak edo ustiapenak garatzen diren gainerako establezimenduetan edo lekuetan sartu ahal izango dira, baldin eta jarduera edo ustiapenok kargapean badaude, zertarako-eta egiaztatu eta ikertzeko.

2. Finka edo eraikinaren jabea edo egoilea, edota haren zaintza lukeen pertsona, ikuskatzaileak sartzearen kontra jarriko balitz, ezin izango dute hauek miaketa burutu ogasun zuzendariaren idatzizko alde zuzeneko baimenik gabe; espainiar edo atzerritarren baten bizileku partikularra litzatekeenean beharrezko izango da mandamendu judizial egokia izatea.

45. artikulua

1. Zerga ikuskatzaileek ikertu beharko dituzte zerga egitateekin zerikusia duten subjektu pasiboaren liburuak eta dokumentazioa, baita programa informatikoak eta euskarri informatikoko artxiboak ere, bere etxebizitza, lokal, idazmahai, langela edo bulegoan, bera edo izendatzen duen pertsona aurrean dagoelarik.

2. Zerga izaerazko arauak edo hauek eskatutako egiaztagiriek ezarritako erregistro eta dokumentuak direnean, haien aurkezpena eskatu ahal izango da udal administrazioaren bulegoetan aztertzeke xedearekin.

46. artikulua

Hauek erabiliko dira zergen ikuskaritzaren jarduerak:

a) Komunikazioak.

b) Eginbideak.

c) Txostenak.

d) Adostasun edo desadostasun aktak.

47. artikulua

1. Egiaztatu eta ikertzeko jardueren emaitzak aktetan jasoko dira.

2. Hauek jasoko dira aktetan:

a) Non eta noiz formalizatu den.

b) Sinatzen duten aktuarioren identifikazio pertsonala.

c) Zergapekoaren izen-abizenak edo izen sozial osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga egoitza; jarduketak gauzatzeko pertsonaren izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta jarduketetan zer gisa edo ordezkariarekin ariko den.

d) Zergaren eta zergaldiaren edo zergaldien identifikazioa. Zerga egitatearen edo zerga betebeharraren eragilearen eta zergapekoarekin duen loturaren oinarritzko elementuak, baita erregularizazioak oinarritzat hartzen dituen zuzenbideko oinarriak ere.

e) Beharrezkoa bada, zergapekoaren zerga egoeraren erregularizazioa eta horri dagokion likidazio proposamena, berandutza interesak barne (badaude).

Adostasun aktak egiten direnean eta zergapekoak zehapen prozedura berezita izapidetzeko eskubideari uko egiten dionean, bidezkoa denean jakinaraziko dira antzeman diren arau hausteak eta proposatzen diren zehapenak.

f) Zergapekoa erregularizazioarekin eta likidazio proposamenarekin eta, egonez gero, zehapenarekin ados dagoen.

g) Akta egin ondoko prozedura izapideak.

h) Beharrezkoa denean, zehapen prozedura berezita izapidetzeari uko egin zaiola.

i) Arau bidez ezartzen diren gainontzeko guztiak.

3. Ikuskatzaileek erabaki ahal izango dute aurreko paragrafoan aipaturiko aktak subjektuaren bulegoan, lokalean edo negozioan, langelan edo etxebizitzan edo ikuskaritzaren beraren edo bulegoetan edo udal administrazioaren beste edozeinetan luza daitezten.

4. Aktak eta diligenziak dokumentu publikoak izango dira, eta horiek formalizatzearen arrazoi diren gertakarien froga dira, aurkakoa egiaztatzen ez bada.

48. artikulua

1. Ikuskaritzak subjektu pasiboaren zerga egoera zuzentzat joko balu aktan jasoko du, eta adostasuna zein kontzeptu eta zergalditara zabaltzen den zehaztuko du bertan. Akta horri egiaztatatu eta ados akta esango zaio.

2. Orobat, akta egingo da subjektu pasibo baten zerga egoeraren ikuskapena egokituz jotzen duen erregularizaziotik udal administrazioaren alde zerga zorrik ateratzen ez denean. Nolanahi ere, subjektu pasiboaren adostasuna edo desadostasuna jasoko da.

49. artikulua

Zergapekoa edo haren ordezkaria aktan jasotzen den eta zerga ikuskatzaileak egin duen proposamenarekin ados badago, berariaz jasoaraziko da aktan, eta ale bat emango zaio, alderdi biek sinatu ondoren. Era horretan, subjektu pasiboari edukia jakinarazi zaiola joko da, eta adostasuna aktan jasotako egitateekikoa ez ezik, zerga zorraren zenbatekoa zehazten duten elementu guztiekikoa ere badela ulertuko da.

Zerga ikuskatzaileak zergapekoaren egoera egokia dela uste badu eta, beraz, ez bada erregularizaziorik egin behar, adostasun akta modura izapidetuko da, zergapekoa ados egonez gero.

Subjektu pasiboak zerga zorraren zenbatekoa ordaindu beharko du, eta ordaintzen ez badu premiamendu bidez ordainaraziko zaiola ohartaraziko zaio, Dirubilletaren Foru Araudian xedatutako epeetan, akta sinatu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

50. artikulua

1. Zergapekoa edo beraren ordezkaria ezarritako tokira bertaratzen ez bada behar den egunean, edo bertaratu eta akta jaso edo sinatu nahi ez badu, desadostasun akta moduan izapidetuko da. Zergapekoa bertan jasotako erregularizazio proposamenarekin ados ez balego, dagokion administrazio espedienteak zabalduko da, eta ematen zaion alean, subjektu pasiboari ohartaraziko zaio eskubidea daukala egoki deritzen alegazioak aurkezteko, akta egin edo jaso den eguna eta zazpigarren egunetik hamabost egutegi eguneko epearen barruan.

2. Aurrean dagoen pertsonak akta sinatzeari uko egingo balio, ikuskatzaileak aktan ukoa agerraraziko du, eta beste ohar bat idatziko du, aktaren bi aleetako bat pertsona horri eman diola agerrarazteko. Pertsona horrek aktaren kopia jasotzeari uko egingo balio, hori ere agerraraziko du ikuskaritzak.

3- Desadostasun aktetan behar den xehetasunez adieraziko dira egitateak eta, laburki, erregularizazio proposamena oinarritu den zuzenbidezko oinarriak; ikuskaritzak edo aktuarioak geroago egin behar duen txosten zabalean oinarri horiek garatzeko aukera izanda. Aktaren gorputzean, halaber, berariaz jasoko da subjektu pasiboaren desadostasuna eta, horrez gainera, eskubidea izango du berak egoki deritzen alegazio guztiak egiteko dagokion unean.

51. artikulua

Zergen arloko arau haustea dira foru arau honetan edo besteren batean zein legeren batean edozein mailatako zabarkeriaz tipifikatu eta zehatu diren doluzko edo erruzko ekintzak eta omisioak.

52. artikulua

1. Zergen arloko arau haustea diruzko zehapenekin zehatuko dira eta, hala dagokionean, diruzkoak ez diren zehapen osagarriekin.

2. Diru zehapena isun finkoa edo proportzionala izan daiteke.

53. artikulua

1. Arau hauste baten ondorioz ezartzen den diruzko isuna 30.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa zergen arloko arau haustea behin eta berriro errepikatu izana eta datuak ezkutatu izana edo iruzurrez nahiz bitarteko pertsona baten bidez jokatu izana erabiltzen badira, jarraian adieraziko diren zehapen osagarriak ezarri ahal izango dira:

a) Urtebetean edo bi urtean dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga onurak edo zerga pizgarriak lortzeko aukera galtzea.

b) Amurrioko Udalarekin bi urtez kontratatzeko debekua.

2. Arau hauste baten ondorioz ezartzen den diruzko isuna 60.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa bada eta zehapena mailakatzeko irizpide gisa zergen arloko arau haustea behin eta berriro errepikatu izana eta datuak ezkutatu izana edo iruzurrez nahiz bitarteko pertsona baten bidez jokatu izana erabiltzen badira, jarraian adieraziko diren zehapen osagarriak ezarri ahal izango dira:

a) Hiru, lau edo bost urtean dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko eta eskabidezko zerga onurak edo zerga pizgarriak lortzeko aukera galtzea (arau bidez ezarritako baldintzen arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000,00, 150.000,00 edo 300.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.

b) Amurrioko Udalarekin hiru, lau edo bost urtean kontratuak egiteko debekua (arau bidez zehaztutakoaren arabera), zehapenaren zenbatekoa 60.000,00, 150.000,00 edo 300.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa denean, hurrenez hurren.

54. artikulua

1. Zerga zehapenak honako irizpideen arabera bakarrik mailakatuko dira, aplikagarriak diren heinean:

a) Zergen arloko arauak behin eta berriro haustea.

Egoera hau gertatu dela ulertuko da, pertsona arau hauslea administrazio bideko ebazpen irmo bidez izaera bereko beste arau hauste bategatik zigortua izan denean, arau haustea gauzatu aurreko lau urteren barruan. Arau haustea izaera berekotzat jotzeko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Araua Orokorraren 191. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan.

Hau gertatuz gero, gutxienerako zehapenari 10 puntu portzental gehituko zaizkio.

Zehapena proportzioskoa ez bada ehuneko 100 handituko da.

b) Datuak ezkutatzea.

Zerga administrazioari datuak ezkutatu zaizkiola ulertuko da, aitorpenik aurkezten ez denean, existitzen ez diren egitate zein eragiketak dituzten aitorpenak aurkezten direnean, zenbateko faltsuak ematen direnean, eragiketak, diru sarrerak, errentak, produktuak, ondasunak edo zerga zorra zehazteko oztopoa jartzen duen beste edozein datu eman ez edo zati batean bakarrik ematen denean; baldin eta datuok ezkutatzearen ondoriozko zorraren eragina zehapenaren oinarriaren 100eko 10etik gorakoa bada.

Hau gertatuz gero, gutxieneko zehapenari 15 puntu portzental gehituko zaizkio.

c) Iruzurrez edo bitarteko pertsona baten bidez jokatzea.

Hauek dira iruzurrezko bideak:

– Funtsezko anomaliak kontabilitatean eta zerga araudiak ezarritako liburu edo erregistroetan, haien eragina zehapenaren oinarriaren 100eko 10 baino handiagoa bada.

– Faktura, egiaztagiri edo bestelako dokumentu faltsuak erabiltzea; baldin eta agiri edo euskarri faltsu nahiz desitxuratuen intzidentzia zehapenaren oinarriaren 100eko 10etik gorakoa bada.

– Bitartekari legez beste pertsona edo erakunde bat erabiltzea, baldin eta arau hausleak, bere nortasuna ezkutatzeko asmoarekin, zehapena eragin duen arau haustearen oinarrian dagoen zerga betebeharra sortu duten ondasunen edo eskubideen titulartasuna, errentak edo ondare irabaziak edo zerga betebeharra dakarten eragiketak beste baten izenean agerrarazi baditu, haren baimenarekin zein baimenik gabe.

Hau gertatuz gero, gutxieneko zehapenari 25 puntu portzental gehituko zaizkio.

d) Interesdunak laguntza berezia ematea ikuskapen jarduketetan zerga administrazioak nekez lor ditzakeen datuak borondatez eskainiz eta, horrek, zerga zorra gehitzea eraginez.

Arau hauste batean horrelakoa gertatuz gero, 30 puntu portzentaletan murriztuko da laguntza emateagatik gehitutako zenbatekoari aplikatu behar zaion zigorraren ehuneko.

2. Mailakatze irizpideak aldi berean aplikatu daitezke.

Mailakatze irizpideak aldi berean aplikatzeak ez du inola ere ekarriko gehieneko zenbatekoa baino zehapen handiagoa, ezta egindako arau hausteari dagokion gutxieneko zenbatekoa baino txikiagoa ere.

55. artikulua

1. Zerga arau haustea da tributu honen arautegian ezarritako epean ez ordaintzea tributuaren autoliquidazio zuzenetik ateratzen den zerga zor osoa edo zerga zati bat, salbu eta erregularizatzen bada Zerga Orokorraren Foru Arauaren (ZOFA) 27. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo aplikatzen bada ZOFAren 165. artikuluan 1. apartatuko b) letra, aurrez ez delarik egon errekerimendurik.

Zergen arloko arau haustea izango da, halaber, errenten eratzikipenean erakundeek eman ez dituzten edo oker eman dituzten zenbatekoen ondorioz bazkide, jaraunsle, erkide edo partaideek ordaindu beharreko zerga zor osoa edo horren zati bat ez ordaintzea.

2. Zehapenaren oinarria arauen bat haustearen ondorioz autoliquidazioan ordaindu ez den zenbatekoa izango da.

3. Zergen arloko arau hauste honengatiko zehapena, 100eko 50eko diruzko isun proporzionala izango da.

56. artikulua

Tributuen behin-behineko edo behin betiko likidazioa egiteko administrazio egintza eman behar duen organoak erabaki eta ezarriko ditu tributuen diruzko zehapenak.

57. artikulua

1. Arau haustea da autolikidazio prozedura bidez eskatzen ez diren zergak behar bezala likidatzeko zerga administrazioak behar dituen aitorten eta agiriak osorik eta zuzen aurkeztu beharra ez betetzea, salbuespen honekin: ZFAOren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera erregularizatzea.

2. Zehapenaren oinarria likidazioaren zenbatekoa izango da aitorten aurkeztu ez bada, edo zergaren likidazio egokitik ateratzen den zenbatekoaren eta aitortutako datuen arabera aterako litzatekeenaren arteko aldea.

3. Zergen arloko arau hauste honengatiko zehapena, 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

58. artikulua

1. Zerga arautegiaren ondoriozko itzulketak bidegabe eskuratzea arau haustea da.

2. Zehapenaren oinarria arau haustearen ondorioz bidegabe itzultako zenbatekoa izango da.

3. Zergen arloko arau hauste honengatiko zehapena, 100eko 50eko diruzko isun proportzionala izango da.

59. artikulua

1. Zerga arau haustea da bidegabeki eskatzea zerga bakoitzaren arautegitik eratorritako itzulketak, autolikidazioetan edo aitorten datu garrantzitsuak ezkutatzuz edo datu faltsuak sartuz, nahiz eta itzulketarik ez lortu.

Zehapenaren oinarria izango da bidegabeki eskatutako itzulketa.

Zehapena, 100eko 15eko diruzko isun proportzionala izango da.

2. Era berean, arau haustea izango da, zergen arloko onurak edo pizgarriak eskatzea horretarako garrantzitsuak diren datuak isilean gordez edo autolikidazio zein aitorten datu faltsuak sartuz; baldin eta jokabide horren ondorioz subjektu pasibo berberari ezin bazaio jarri ZOFaren 195., 196., 199. edo 198.1 artikuluan aurreikusten den arau hausteengatiko zehapenik.

Apartatu honetan aurreikusitako arau haustearen zehapena 300,00 euroko diru isuna izango da.

60. artikulua

1. Arau hausteetatik eratorritako erantzukizuna ordainketa egitearekin edo zehapena betezearekin edo preskripzio edo barkamenarekin azkentzen da.

2. Subjektu urratzaileak hildakoan, bete gabe dauden zerga betebeharrak jaraunseei edo legatu hartzaileei eskualdatuko zaizkie. Hala ere, kontuan hartuko da jaraunspena eskuratzeko legeria zibilean ezarriarik dagoena. Zehapenak ez dira ezein kasutan ere eskualdagarriak izango.

3. Desegin edo likidaturiko sozietate edo erakundeen kasuan, berauen zerga betebeharrak betegabeak kapitaleko partaideei edo bazkideei eskualdatuko zaizkie. Berauek solidario gisa erantzungo dute, adjudikatu zaien likidazio kuotaren balioaren mugarainokoaren erantzule izango direlarik.

61. artikulua

Zerga administrazioak akats materialak edo berezkoak eta aritmetikoak zuzenduko ditu noiznahi, ofizios edo interesdunaren eskabidez, baldin eta zuzenketa egin beharreko egintza eman zenetik bost urte igaro ez badira.

62. artikulua

Tokiko zergen aplikazioari eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da haiek eman zituen organo berean; errekurtso horren berariazko zein isilbidezko ezestearen kontra, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango dute zuzenean interesdunek.

63. artikulua

Interesatuek administrazioarekiko auzi errekurtsua zuzenean jarri ahal izango dute zergen ezarpenaren, aplikazioaren eta eraginkortasunaren arloko edo ordenantza fiskalak onetsi eta aldarazteari buruzko udalbatza honen erabakiei buruz egindako erreklamazioei amaiera ematen dieten egintzen aurka.

64. artikulua

Toki zergen aplikazioaren eta eraginkortasunaren gaineko egintzen aurka birjarpenezko errekurtsua jartzeko, ez da beharrezkoa izango eskaturiko kopurua aurretik ordaintzea. Hala ere, errekurtsua jartzeak ez du kobratzeko administrazio egintza geldituko, interesdunak aurkaratutako egintza betearaztea etetea eskatzen ez badu errekurtsua jartzeko epearen barruan. Etete hori eskatzeko ezinbestekoa izango da zerga zor osoa estaltzen duen bermea aurkeztea. Balizko horretan, etetea eskatu eta emango da. Horretarako, errekurtsogileak honako berme hauen artean aukeratu behar du, eta ez da besterik onartuko:

a) Haren gordailu kutxa orokorreko edo horren sukurtsaletako edo, hala denean, interesatuta dagoen korporazioko edo erakundeko balore publikoetako eskudirutako gordailua.

b) Ofizialki erregistratutako banku edo bankari batek, aurrezki kutxa konfederatu batek, aurrezki postakutxa batek edo kreditu kooperatiba kalifikatu batek mailegatutako izaera solidarioa abala edo fidantza.

c) Herriko kaudimen ezaguneko zergadun bik 5.000,00 pezetako zordunketetarako bakarrik mailegatutako behin-behineko fidantza solidarioa.

Halere, oso kasu berezi eta kualifikatuetan, udal administrazioak, alderdi batek eskaturik, prozeduraren etendura erabaki ahal izango du beren iritzia arabera, inolako bermerik eman gabe, errekurtsogileak bere eskarian azaldu eta egiaztatzen duenean bermerik eratzeko ezinezkoa zaiola edo sinesgarriro frogatzen duenean bere tokiko zergen ezarpen eta eraginkortasunari buruzko egintzetan akats material eta aritmetikoak daudela.

Etendura onartzeak berekin dakar beti berandutze etendurak ordaindu beharra haren denbora guztiagatik eta berraztertze errekurtsuan baino ez ditu eraginak izango.

65. artikulua

Osoko bilkurari dagokio zuzenbide osoko deuseztasuna adieraztea eta zergak kudeatzeko bidean emandako egintzak berriro ikustea, lurralde historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean araupeturiko prozeduraren bitartez eta kasuetan.

1. ERANSKINA

OHZREN HOBARIAREN EHUNEKOA ERRENTAREN ARABERA	TASEN HOBARIAREN EHUNEKOA
99	ehuneko 90
50	ehuneko 50
30	ehuneko 30
15	ehuneko 15
10	ehuneko 10

2. ERANSKINA

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN 2 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN 2. ERANSKINEKO 1. TULAN EZARRITAKO TARTEA	TASEN HOBARIAREN EHUNEKOA
T-2	ehuneko 50
T-3	ehuneko 30
T-4	ehuneko 15
T-5	ehuneko 10

V. AZKEN XEDAPENA

Kudeaketari, bilketari eta ikuskapenari buruzko 1 zenbakiko zerga udal ordenantza orokorra, aldatzen da, onespren hori behin betikotzat joz, jendaurrean erakusteko aldian ez baita erreklamaziorik aurkeztu, eta ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta hala iraungo du aldatzea edo indargabetzea onetsi arte”

Amurrio, 2024ko azaroaren 21a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA